



EUSPEL
EUSKAL POLIZIEN ELKARTASUNA

Hemen gaude gaur, Eusko Jaurlaritzaren aurrean, alde batetik salatzeko Segurtasun Sailak, axolagabekeria larria ari dela erakusten “2016 Ertzaintza Ortzemuga” egitasmoa edukitzearekin eta ezarpenean ez atzera egitearekin.

Joan den astean, Gasteizko Legebiltzarrean, Ertzaintzaren ordezkariak duten sindikatu guztiek, eta, gaur bertan Ertzaintzako kideen artean egin den inkestaren emaitzak emanez ere, salatzen dugu ezarpen honek herritarrei eskaintzen zaien zerbitzuan eta Ertzaintzaren eskubideetan etengabeko urraketa dakarzikela, besteak beste egitasmo honen ezarpenetik ematen den langileriaren gabeziak estaltzeko ertzainei eragiten dien mugikortasun geografikoa.

Beraz, exijitzen dugu: 2016 Ortzemuga Plana berehalakoan indargabe uztea?

Beste alde batetik, era berean, salatu nahi dugu Sailburutza honek behin eta berriro orainarte adostutakoa bete eta kendu zaizkigun guztia itzultzean oinarrituko den benetako negoziazioari uko egiten diola.

Horrelakorik ez dugu onartzen eta “negoziatio plantak egitearen” languntzaile ere ez gara izango, horrela jokatzek, benetako negoziazioari era sistematikoan uko egiten dion sailburutzari hedabideen estaldura ematea litzateke-eta. Bide horretatik, txandako Jaurlaritzari bere politikak erraztuz, sindikatu laguntzaile gisa jarduten duten kolaborazionisten moral bikoitza ere salatzen dugu.

Halaber, Eusko Jaurlaritza zuzentzen duen alderdiak erakusten ari den neurgailu bikotza ez dugu onartzen eta honen aurrean ez dugu etsiko, hala nola, Ertzaintzaren langileriari negoziatioa ukatu eta murrizketak ezartzen zaion aldi berean, gobernatzen duen beste mahai batzuetan kendutakoa berreskuratzea mahaigaineratzen ari da, esate baterako, aparteko ordain sariaren kasuan.

Horrenbestez, Ertzaintzaren langile bakoitza animatzen dugu geurea denaren eta zor diguten begirunea, hain zuzen ere gordetzen ez digutela erakutsi diguten begirunea irabaztearen alde borrokan segi dezan.

Murrizketarik gabeko benetako negoziatioa ORAIN!!,

2016 ortzemuga plana kanpora!!

Bilbon, 2014ko ekainaren 17 a